

ENAP

Euskara Nafarroako Administrazio Publikoetan
[8. zk.] 2024ko azaroa

OROIBIDEA

Nafarroako oroimena berreskuratzeko proiektua

ELAIDE

Nafarroako tokiko euskara zerbitzuek sortutako baliabideen gunea

EUROGUTUNA

Europako Kontseiluaren Eskualdeetako edo gutxitutako hizkuntzen Europako gutuna

TRACASA WomenTIC

Emakumeen artean STEM bokazioak sustatzeko taldea



Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua



euskarabidea

ENAP

Euskara Nafarroako
Administrazio Publikoetan
[8. zk.] 2024ko azaroa

Koordinatzailea:
Euskara Administrazio
Publikoetan
Garatzeko Zerbitzua
(Euskarabidea)

Kolaboratzaileak:
Hizkuntza Baliabideen Zerbitzua,
Komunikazio Zerbitzua,
Tracasa, Nafarroako Memoriaren
Institutua,
Nafarroako Udal Euskara
Teknikarien Sarea,
Euskaltzaindia

Diseinua: Ana Cobo
Irudiak: Freepik
Argazkiak: Euskarabidea

ENAP aldizkarian argitaratutako
artikuluak berridatz daitezke bai
osorik, bai zatika, baina artikuluak
nondik atera diren aipatu
behar da beti.

ENAP aldizkariak ez ditu
derrigor bere egiten artikulu eta
kolaborazioetan agertzen diren
iritziak.

ISSN: 2697-0988

Egilea: Euskarabidea-Euskararen
Nafar Institutua
Paulino Caballero 13
31002 Iruña
Tel. 848 42 60 54
www.euskarabidea.es



Leitza - Doneztebe errepidearen zatia (egungo NA-170)
Zubietatik igarotzean, Lotzabien eta Sarokaitz parajeen
artean (1932. urtea). Argazkilaria: J. Leganes.

Tramo de la carretera Leitza - Doneztebe / Santesteban
(actual NA-170) a su paso por Zubieta, entre los parajes de
Lotzabien y Sarokaitz (año 1932). Fotógrafo: J. Leganes.

AURKIBIDEA

- 4-6 **Elkarrizketa:** Tracasa WomenTIC
- 7 **Erreportajea:** Oroibidea artxibo digitala
- 8 **Gobernutik:** Sexu Indarkeriei Arreta
Integrala emateko Zentroa
- 9 **Parlamentutik:** Nafarroako Arartekoa
- 10-11 **Euskarabidetik:** Eskualdeetako edo
gutxitutako hizkuntzen Europako
gutuna
- 12 **Udaletatik:** Elaide.eus webgunea
- 13 **Hiztegi terminologikoa:**
Zibersegurtasuna
- 14-15 **Ohar historikoa:** Salvador Echaide
notario euskaltzalea

* Hurrengo aleetan parte hartu nahi baduzu, bidali zure proposamena
euskarabidea@navarra.es helbidera.

TRACASA WomenTIC

Zientzialariak, emakumeak eta Nafarroakoak. Hiru osagai hauek dituzten emakume talde batek aurrerapauso bat eman du eta STEM (zientzia, teknologia, ingeniari eta matematika) diziplinetan emakumeen presentzia areagotu behar dela aldarrikatu du. Nafarroako Gobernuaren Tracasa Instrumental eta Tracasa Global sozietate publikoetako profesionalak dira, eta TracasaWomenTIC taldea sortu dute. Mezu bat helarazi nahi dute, batez ere neskei: STEM ikasketak ere haientzat dira.

Nerea Larrea eta Maite Zabaltza, TracasaWomenTIC

Nola definituko zenukete STEM, modu errazean ulertzeko?

Ingelesetik datorkigun kontzeptua da STEM, zientzia, teknologia, ingeniari eta matematikak osatzen duten akronimoa da, hain zuzen ere. Ingeleseko akronimo hau erabiltzen dugu, hedabideetan zabaldu eta ezagutu den izena delako. Euskarazko akronimoa ZTIM litzateke, agian alderantziz esanda MITZ, eta gaztelaniaz CTIM alegia. Hartzaile gehiagorengana iristeko asmoz STEM aukerarekin gelditu ginen.

STEM arloko graduek mutilak gehiago erakartzen dituztela entzuzera ohituta gaude, baina egia al da? Zer diote datuek?

Datu zehatzak ezagutu baino, gure esperientzia eta bizipena ditugu lekuko. Gure lan-ingurunean teknologiarik lotutako sektorea izanik zailagoa da emakumezko profilarik topatzea. Gure ingurura begiratzen dugunean, ohikoena da gizonezko gehiago izatea lantaldeetan emakumezkoak baino.

Beharrezkoa da, beraz, nesken belaunaldi berriak STEM mundura hurbiltzeko motibatzea. Zer ideia dituzue?

Hala uste dugu guk behintzat. Are gehiago, belaunaldi berriei ez ezik interesa edota lan ibilbide aldaketa bilatzen ari den edonor motibatzea garrantzitsua iruditzen zaigu.

Mila formula egon litezke hori lortzeko, esaterako, STEM eremu erakargarri gisa aurkeztuz, arlo horiei lotutako beldurra kenduz eta haien aplikazioak azalduz eta irakatsiz. Kasu askotan, eremu konplexu gisa aurkezten dira, eta aplikazio errealek ezezagunak dira erabilgarritasuna zalan-tzan jarriz. Gainera, horrek, genero-estereotipo eta aurreiritziekin batera, zenbait beldur eta arbuio sortzen ditu, eta, ondorioz, batzuetan emakumeei kostatu egiten zaie aukera horien alde egitea. Horregatik, emakumezkoen erreferentzia hurbilak ezagutaraztea bereziki interesgarria iruditzen zaigu.

Esan daiteke informatikaren munduan sortzen diren software eta aplikazioek genero-alborapena dutela?

Software eta aplikazio berriak sortzen dituzten lantaldeek erlazio zuzena dute teknologia horren erabilpena nolakoa izanen den zehazteko. Langileen artean aniztasunik ez badago, zaila izanen da ikuspuntu, neurri eta behar desberdinak asetzera. Adimen artifiziala (AA) geroz eta ohikoagoa den honetan, ezin dugu ahaztu hori entrenatu behar dela eta, horretarako erabiltzen den informazioa lagin adierazgarri bat ez bada, erabiltzean alborapenak agertzea errazagoa izanen da hori genero alborapenak barne.

Hori hobeto ulertzeko adibide batzuk aipatu ditugu:

* **Aurpegia ezagutzea:** Zenbait azterlanek erakutsi dute aurpegia ezagutzeko sistemek errore-tasa handiagoak dituztela emakumeentzat eta kaukasikoak ez diren pertsonentzat. MIT Media Lab-ek 2018an egindako ikerketa baten arabera, aurpegia ezagutzeko IBM, Microsoft eta Face++ sistemek errore-tasa nabarmen handiagoak zituzten azal iluneko emakumeekin, larruzal argiko gizonekin baino.

* **Laguntzaile birtualak:** Siri, Alexa eta Google Assistant laguntzaile birtualak, besteak beste, kritikatuak izan dira genero estereotipoak betiko-tzeagatik. Adibidez, parte-hartzaile horietako gehienek ahots femeninoak dituzte lehenetsita, eta sarritan modu otzanean edo lagunkoian erantzuten dute, eta horrek genero estereotipo tradizionalak indartu ditzake.

* **Kontratazio prozesuak:** 2018an, Amazonen AAn oinarritutako erreklutamendu tresna bat bertan behera utzi behar izan zuen, emakumeen aurkako joera erakusten zuelako. Sistema hamar urtez enpresara bidalitako curriculumekin trebatuta zegoen, eta horietako gehienak gizonezkoenak ziren. Ondorioz, algoritmoak "emakume" hitza zuten edo zenbait unibertsitate femeninotako graduatuenak ziren curriculumak zigortu zituen.

* **Itzulpen automatikoa:** Itzulpen automatikoko sistemek, Google Translate kasu, batzuetan genero-joerak erakusten dituzte. Adibidez, genero gramatikalik gabeko hizkuntza batetik generoa duen hizkuntza batera esaldiak itzultzean, sistemak estereotipoetan oinarritutako generoak esleitu ditzake. Ingelesean, "He is a

nurse" eta "She is a doctor" bezalako esaldi bat oker itzul liteke beste hizkuntza batzuetara, generoak esleitura.

Eta orduan jaio zen 2022an Tracasa WomenTIC. Zein helbururekin?

Sektore teknologikoan lan egiten duten emakumeen ikusgarritasuna areagotu nahi dugu, aldaketa-eragileak izan eta gizarte-aldaketari gure ekarpena eginez.

Zer ekintza mota egiten dituzue?

STEM diziplinak belaunaldi berrietara hurbiltzen, emakumezko erreferenteak agerian jartzen eta bokazio berriak babesten lagunduko duten askotariko ekintzak ditugu esku artean eta, batez ere, ideia eta ekimen berrietara zabalik jarraitzen dugu. Izan ere, helbide elektronikoko bat dugu (tracasawomentic@itracasa.es) beste pertsona eta erakunde batzuekin harremanetan jartzeko.

Azken urte honetan bi ekimen nagusi burutu ditugu

* **STEM Erronka:** Nafarroako ikastetxeetako Haur eta Lehen Hezkuntzako maila zuzendutako ekimena da. Ekitaldi berezi batean, ikasmaila desberdinetako hainbat ikastetxetako ikasleak bildu genituen jardura dibertigarri eta hezitzaileetan parte hartzeko, ikuspegi kolaboratibo eta ez-lehiakorarekin. Zientzia, Teknologia, Ingeniari eta Matematikarekiko (STEM) grina haurtzarotik pizteko helburua du ekimen honek, jakin-mina eta sormena landuz, eta aukera berriak aztertuz. Informazio gehiago STEM erronkako webgunean jaso daiteke (<https://www.desafioSTEM.org/eu>).

* **Rompiendo la rueda (Gurpila hautsiz):** IKT sektoreko emakumeen arteko topagunea da, esperientziak partekatzeko, gazteen artean STEM bokazioak ikusarazteko eta sustatzeko eta etorkizuneko belaunaldiak sektore teknologikoan erreferente bihurtzeko. Horretarako, ezinbestekoa iruditzen zaigu egiazko erreferente hurbilak sortzea, eguneroko emakumeak, beren esperientziak kontatu eta belaunaldi berriei atea irekiko dizkietenak; izan ere, askotan, horrelako karrera profesionalak eskuratzeko hartzen baitira. Bi elkarrizketa argitaratu ditugu dagoeneko eta ikusgarri daude: <https://www.youtube.com/watch?v=5Rs8YAy1Qgc>

ELKARRIZKETA



Bi ildo horiez gain, dagoeneko abian ziren proiektu batzuetan ere parte hartu dugu, Nafarroako Unibertsitate Publikoan ikasleei eskaintzen zaien mentoretza programan, eta baita Planetarioko STEM planetak antolatzen dituen zenbait ekintzatan ere, CanSat eta Lego League-ko epaimahaiari parte hartuz, esaterako.

Zuen lankideen artean gehiengoak gizonezkoak dira? Nolako da haiekin duzuen harremana?

Norberak bizipen desberdina du, laneko harremanen desberdintasuna ez guke gizon edo emakumezkoen artean banatuko. Lankide harremana inguruan ditugun pertsonen izaeraren arabera da. Ugari bezain askotarikoa izan daiteke.

Hala ere, egitura hierarkikoetan oraindik ere nabarmentzen dira desberdintasunak, erantzukizun karguak gizonezkoek betetzen dituzte, aniztasuna falta da eta emakumeen ordezkari faltan sentitzen da; Tracasan enpresako lehen emakume gerentea dugu 40 urteko historian, baina salbuespena da.

Zer erronka teknologiko dituzue gaur egun? Nolako eragin praktikoa dute Adimen Artifizialak eta Big Datak zuen lanean?

Teknologiak eta egungo berrikuntzek gure produktibitatea eta eraginkortasuna handitzen dituzten tresnekin lan egitea errazten digute. Gainera, bide berriak irekitzen dituzte, aukera berriak aztertze eta baliabide globalak eskuratzeko aukera ematen digutelako.

Baina, Adimen Artifizialaren eta Big Data-ren erabilerak erantzukizun etikoak dakartza.

Algoritmoak garatzen, diskriminazio eta aurreiritziak saihesteko neurriak hartzen ditugu, eta gure lanaren gardentasuna bermatzen saiatzen gara.

Erronka horri dagokionez, kontzienteak eta arduratsuak izaten saiatzea da garrantzitsua gure iritziz.

Gainera euskaldunak ere bazarete, posible al da STEM eta euskara uztartzea?

Posible bezain beharrezkoa! Euskara eguneroko bizitzan erabili nahi badugu, teknologian eta zientzian (STEMen bere osotasunean) egon behar du.

Zalantzarik gabe, aurrerapausoak ematen ari dira, eta STEM ikasketek gero eta emakume gehiago erakartzen dituzte. Nola ikusten duzue etorkizuna arlo horretan?

STEM ikasketa guztiak batuta baliteke emakume gehiago egotea, hala ere, desberdintasun handiak ikusten ditugu STEM graduak biltzen dituzten arloen artean. Osasun zientzietako graduetan joera gorakoa da, zaintzekin erlazionatutako lanbideak izateko bidea delako akaso..., ingeniartzan aldiz, ez da berdina gertatzen. Argi dago STEM ikasketetan emakumeen presentzia handitzea nahitaezko aurrerapauso bat dela baina ez da nahikoa. Aldi bereko aurrerapauso gehiago eman beharko genituzke, adibidez, ikasketetan ikusten diren bezainbeste emakume erantzukizun maila guztietako lanetan aritzea eta duten postua dutela haien ahotsa eta ikuspuntuak entzun eta kontutan hartzea.

Etorkizunean, emakumeen parte-hartzea STEM arloetan are gehiago handitzea espero dugu, eta horrek ekarpen handiak egitea zientzia eta teknologiaren garapenean. Lantalde pluralagoek ikuspegi zabalagoak ekartzea espero dugu eta horrek gizartearentzat bidezkoagoak eta hobeak diren irtenbideak garatzen lagunduko du. Beraz, emakumeen parte-hartzea handitzeak berdintasuna sustatu eta gure mundua hobetzeko aukera berriak ere ekarriko dituela uste dugu. ■

Entrevista a TracasaWomenTIC, grupo de mujeres trabajadoras de Tracasa Instrumental y Global que fomentan la participación de las mujeres en disciplinas STEM.

OROIBIDEA,

Nafarroako memoria historikoaren gunea



Nafarroako Gobernuak, **Nafarroako Memoriaren Institutuaren bidez**, artxibo digital bat sortu du bere memoria historikoari buruzko dokumentazioarekin, estatu mailan erreferentziazkoa dena. Oroibideak, oraingoz, gerra zibilak eta frankismoak eragindako 23.053 biktimei erreferentziak jaso ditu. Datu horiek hainbat formatutan daude: testuak, audioak, elkarrizketak, bideoak, dokumentu juridikoak, hobiak aurkitzeko mapak, etab.

Artxiboa osatzeko hainbat iturri erabili dira, dokumentu-funts publikoak nahiz pribatuak jaso eta digitalizatu dira eta ikerketak sustatu dira errepresioaren dimentsio zehatzei buruz. Nafarroako Memoria Historikoaren Dokumentu Funtsak edo Hobien Mapak bildutako datuak ere "Oroibidea" proiektuan txertatu dira.

Oroibidea artxibo digitalak pertsonen edo herrien arabera bilaketak egiteko aukera emateaz gain, errepresio lekuen arabera bilaketak ere egiteko aukera ematen du. Bertan 244 hobi, 127 espetxe, 20 kontzentrazio-esparru eta behartutako langileen 45 batailoi sartu dira. Leku horietako bakoitzean, bertatik igaro ziren biktime guztiak zerrendatzen dira, 16.369 guztira.

Artxibo digital hau belaunaldi berriei ere zuzenduta dago, 'Memoria duten Eskolak' programaren bidez herritarren prestakuntza demokratikoan laguntzeko eta, horrela, memoria kritikoa sustatzeko eta etorkizuna eraikitzeko tresna gisa.

Oroibidea, Nafarroan oroimena berreskuratzeko bidea. Zer gordetzen du?

FITXA PERTSONALA	Datu pertsonal nagusiak, jasandako errepresioa eta pertsona horri buruzko dokumentuak, irudiak, argazkiak eta erreferentzia bibliografikoak.
ELKARRIZKETAK	365 elkarrizketa daude, Nafarroako Memoriaren Institutuan gordetakoak. Elkarrizketak transkribatu dira.
DOKUMENTUAK HERRIAREN ARABERA	Bilatu nahi den Nafarroako biztanleriari buruzko dokumentazioa eskura daiteke, eta edukiak funts edo dokumentu motaren arabera iragaz daitezke.
MAPAK	Biktimei edo errepresio tokiei buruzko informazio zehatza erakusten duten garapen kartografikoak ikusgai daude.
ERAKUSKETAK	Gai espezifikoak garatzen dituzten erakusketa birtualetara sartzeko aukera ematen dute, hala nola gatibutasuna edo desobiratze goiztiarrak.

Se detallan los servicios que ofrece el portal **Oroibidea**, base de datos principal del Instituto Navarro de la Memoria.

Sexu-indarkerien Arreta Integraleko Zentroa (SIAIZ)

SEXU-INDARKERIEN ARRETA INTEGRALEKO ZENTROA

☎ 848 463 999
✉ caivs@fundaciongizain.es

caivs siaz

ZERBITZUAK ETA INFORMAZIOA EDOZEIN SEXU INDARKERIAREN EGOERAREN AURREAN

365 EGUN 24 ORDU

PREBENTZIOA ETA SENSIBILIZAZIOA

AURREZ AURREKO ZEIN TELEFONO BIDEZKO ARRETA ETA ARRETA TELEMATIKOA

LAGUNTZA PSIKOLOGIKOA, SOZIALA, HEZKUNTZA ARLOKOA ETA JURIDIKOA

Financiado por la Unión Europea
Europako Batasunak Finantzatua
NextGenerationEU

Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia

Gobierno de Navarra Nafarroako Gobernua

Nafarroako Gobernuak indarkeria matxista jasan duten emakumeak artatzeko zentroa ireki du Iruñean, Arrosadia auzoan. **Sexu-indarkerien Arreta Integraleko Zentroa** egunero, urteko 365 egunetan, eta 24 orduz egoten da zabalik eta Nafarroa osoko emakumei ematen die arreta.

16 urtetik gorako emakumei zuzenduta dago eta arreta aurrez aurre edo telematikoki egiten du. Ez da beharrezkoa izango salaketarik egotea tartean, eta erasoak ez du zertan unean bertan gertatu izan. Iraganen gertatu bada ere, arreta izango dute emakumeek. Sexu-indarkeria jasan duten emakumez gain, haien familiak eta hurbilekoak ere informatzen eta laguntzen ditu doako zerbitzu honek.

Zentroa Arrosadian kokatzeak badu bere zergatia; unibertsitate eremutik gertu egotea. Nafarroako Gobernuak krisi zentroa gazteak ibiltzen diren gunetik gertu egotea lehenetsi du, emakume gazteak baitira sexu-indarkeria salatzen duten gehienak.

Nafarroako Berdintasunerako Institutuaren 2021eko datuen arabera, 30 urtez azpikoek jarri zituzten salaketen % 82.

Zentroak askotariko zerbitzuak / zerbitzu ugari eskaintzen ditu: biktimei eta haien ingurukoei informazioa eta orientazioa eskaintzeaz gain, arreta psikologikoa ere eskaintzen dute, bai momentuko krisiei aurre egiten laguntzeko, bai eraso horrek utz ditzakeen epe luzerako ondorioak erreperatzeko ere.

Emakumei arreta integrala eskaintzeaz gain, sexu-indarkeria saihesteko eta herritarrak horren inguruan sentibilizatzeko jarduerak eta ekintzak ere egingo dira: jardunaldiak, prestakuntzak, informazio kanpainak, etab. ■

El Gobierno de Navarra ha puesto en funcionamiento el **Centro de Atención Integral a las Violencias Sexuales** (CAIVS).

Defensor del Pueblo de Navarra Nafarroako Arartekoa

Nafarroako Arartekoa 2001. urtean martxan jarri zen erakunde parlamentarioa da, Nafarroako Parlamentuaren mendeko organoa. Hori dela eta, Parlamentua da Arartekoa hautatu eta izendatzen duena. Ez dago Nafarroako Gobernuaren menpe, eta objektibotasunez eta independentziaz jarduten du.

Nafarroako administrazioaren eta toki entitateen jarduna gainbegiraten du eta eskubide urraketan kasuetan herritarren arazoak konpontzen saiatuko da. Egiten duena ez da loteslea. Gomendioak eta iradokizunak ematen ditu. Hori dela eta, Arartekoak ebazpena ematen duenean, ezin da errekurtsorik jarri.

Arartekoarengana joateak ez ditu administrazio-errekurtsio bat aurkezteko edo auzi-errekurtsio bat aurkezteko epeak eteten, erakunde parlamentarioa delako.

Edozein pertsona fisiko edo juridikoa aurkez dezake kexa Arartekoaren aurrean. Ez dago adin, hiritartasun... baldintzarik. Hori bai, norberaren datuak jarri eta sinatu egin behar dira. Ezin dira anonimoak izan.

Kexa aurkezteko epea urtebetekoa da, pertsonak kalte hori gertatu dela jakin duenetik hasita, ez kaltea gertatu denetik.

Nafarroako Arartekoak administrazio baten jarduna gainbegiratu behar duenean, legeak dio hark lehentasunez eta presaz lagundu behar diola. Lankidetzan aritzen ez den unitate bat badago, arartekoak bere lanaren oztopatzaile gisa hartuko du. Parlamentuan aurkezten den urteroko jardura txostenean jasotzen ditu berarekin kolaboratu ez duten erakundeak, horri buruzko txosten zehatzak ere egin ditzake eta baita zerrrenda webgunean publikatu ere.



Defensornavarra.es/eu webguneko "Ebazpenak" atalean ikus daitezke 2001. urtetik aurrera emandako ebazpen guztiak kronologikoki eta gaika sailkatuta. Gaien artean "Euskara" dago eta bertan daude euskara tarteko dela Arartekoak jaso dituen kexei emandako erantzunak. ■

Resumen de los objetivos y funcionamiento del Defensor del Pueblo de Navarra.

Eskualdeetako edo gutxitutako hizkuntzen Europako gutuna

Europako Kontseiluak hizkuntza aniztasuna babesten du, Europa eraikitzeko oinarri gisa. Garrantzitsua da, lehenik, Europako erakunde nagusien ikuspegi orokorra izatea:



EUROPAKO KONTSEILUA

- 46 estatu
- Egoitza nagusia: Estrasburgo
- 1949an sortua
- Egitura:
 - Ministroen Batzordea
 - Biltzar Parlamentarioa
 - Giza Eskubideen Europako Auzitegia
 - Tokiko eta Eskualdeetako Botereen Kongresua



EUROPAR BATASUNA

- 27 estatu
- Egoitza nagusia: Brusela
- 1993an sortua
- Egitura:
 - Europako Parlamentua (1952an sortua)
 - Europako Batzordea (1958an sortua)
 - Europako Banku Zentrala (1998an sortua)
 - Europar Batasuneko Justizia Auzitegia (1952an sortua)
 - Kontseilu Europarra (2009an sortua)
 - Europar Batasuneko Kontseilua (1993an sortua)
 - Europako Kontuen Auzitegia (1975an sortua)



Eskualdeetako edo gutxitutako hizkuntzen Europako gutuna 1992. urtean bultzatu zuen Europako Kontseiluak, eta 34 estatuk sinatu zuten. Espainiak, gutuna sinatzeaz gain, 2001. urtean [Estatuko Aldizkari Ofizialean](#) argitaratu zuen gutuna berresteko tresna.

Geroztik, Europako Kontseiluko adituen batzorde baten bidez gutunaren aplikazioaren jarraipena egiten da. Txostenak webgune honetan argitaratzen dira (ingelesez): [Coe.int](#)

2017-2021 epealdiari dagokion seigarren jarraipen txostena prestatzeko, adituen batzordeak [bisita egin zuen Iruñera](#), euskararen egoera bertatik bertara ezagutzeko. Euskarabideak koordinatu zuen bisita, eta Euskadi eta Nafarroako erakunde eta herri eragileek parte hartu zuten.

2024ko irailean argitaratutako [txostenean](#), hainbat gomendio egiten dira administrazioko langileen euskararen ezagutzari, euskararen sustapenean bereizketa administratiboak gainditzeari edota nazioarteko streaming plataformetan euskararen presentziari buruzkoak. ■

Se exponen las características del Consejo de Europa y la Unión Europea y se resume el seguimiento de la aplicación de la Carta Europea de las Lenguas Regionales o Minoritarias con respecto al euskera en Navarra.



UDALETATIK



ELAIDE.EUS WEBGUNEA

Euskara ikasten ari direnentzat lagungarri diren informazioz eta tresnez osaturiko webgunea da Elaide.eus, euskaraz bizitzeko eta hizkuntzarekin gozatzeko.

Hala bada, euskara ikasleentzat sorturiko txokoa da webgune hori, ikasleen ikasketa prozesuan aurrera egiten laguntzeko, hizkuntzara hurbiltzeko eta hizkuntza erabiltzeko aukerak eta baliabideak lortzeko toki ezin hobea.


Elaide proiektua Nafarroako Udal Euskara Teknikarien Sareak garatu du, Nafarroako Gobernuaren laguntzarekin.

Bertan honako hauek aurkituko dituzte ikasleek: informazio eguneratua eta intereskoa, euskarazko aktibitateen agenda, bi asteroko buletina, ikasteko dirulaguntzei buruzko informazioa, hizkuntza ikasi eta praktikatzeko baliabideak, hainbat webgune eta proiektuetarako estekak (Euskaraldia, tokiko hedabideak, etab.).

Mami hori guztia ataletan banatua dago ikasleen nahien eta beharren arabera bilaketa errazteko:

- ✦ **Albisteak:** ikasleendako informazio eguneratua; konparazio baterako, matrikula eta izena ematea, ikasteko dauden dirulaguntzak, euskaltegiak eta aisialdirako proposamenak (irakurtzeko gomendioak, musika emanaldiak, bertsolariak, ikasteko baliabideak...).
- ✦ **Euskaltegiak:** Nafarroako euskaltegien zerrenda eta harremanetarako informazioa.
- ✦ **Dirulaguntzak:** udalek eta Nafarroako Gobernuak ematen dituzten dirulaguntzen berri.
- ✦ **Hizkuntza garatzeko baliabideak:** aldizkari digitalak eta irakurtzeko, entzuteko irratik eta telebista saioak, ikusteko filmak eta saioak, jostatzeko jokoak eta ariketak, ikasketan sakontzeko ariketak edo azterketetarakoak...
- ✦ **Agenda:** egunez egun ikasleentzat intereseko izan daitezkeen gaiak edo emanaldiak.
- ✦ **Musikaz blai:** euskarazko musika zabaltzeko ekimena. Pertsona ezagunek proposatutako euskarazko kantu-zerrendak eskaintzen dira.

La red de servicios de euskera municipales de Navarra ha creado la web de recursos **Elaide.eus** con el objetivo de facilitar el proceso de aprendizaje de euskera.



HIZTEGI TERMINOLOGIKOA




Zibersegurtasuna

Ciberseguridad

Antibirusa	Antivirus
Aurpegia ezagutzeko sistema	Sistema de reconocimiento facial
Autentifikazioa	Autenticación
Birus informatikoa	Virus informático
Delitu informatikoa	Delito informático
DoS eraso (zerbitzu-ukatzearen bidezko eraso)	Ataque DoS (ataque de denegación de servicio)
Hackerra	Hacker
Identifikazio biometrikoa	Identificación biométrica
Identitatea ordeztea	Suplantación de identidad
Intrusioa	Intrusión
Iruzurrezko webgunea	Sitio web fraudulento
Kalteberatasuna	Vulnerabilidad
Kontuaren egiaztapena	Verificación de la cuenta
Malwarea (software gaiztoa)	Malware (software malicioso)
Pasahitz ez-segurua	Contraseña no segura
Phishinga	Phishing
Spam mezua	Mensaje spam
Spywarea (software espioia)	Spyware (software espía)
Suebakia	Cortafuegos
Troierra	Troyano
Web iluna	Web oscura
Web sakona	Web profunda
Ziberdelinkuentzia	Ciberdelincuencia
Zibererasoa	Ciberataque
Zibergaizkilea	Ciberdelincuente
Ziberjazarpena	Ciberacoso
Zibermehatxua	Ciberamenaza

OHAR HISTORIKOA

Salvador Echaide Belarra, notario euskaltzalea (1851-1921)



Biografoek Senperen kokatzen dute Echaideren jaioterria, 1851. urtean. Haren ama, Martina, Etxalartarra zen eta aita, Vicente, Arantzakoa. Haurtzaroa Igantzin igaro zuen familiarekin. Zuzenbidean lizentziaduna zen. Angela Aguinaga iruindarrarekin ezkondu zen eta bi alaba eta seme bat izan zituzten. 1921eko abenduaren 23an hil zen gripe-miokarditisatik.



Notarioa eta foruzalea

Nabarmendu beharra da 1877an sartu zela notariotza munduan Echaide, hirugarren karlistaldia amaitu eta urtebete eskasera, bere promozioko notarik onena erdietsita, Iruñeko Notarioen Elkargorako oposizioak gaindituta.

Ibilbide profesionalean, Echaide Iruñeko notario eta Iruñeko Notarioen Elkargoko Zuzendaritza Batzordeko kide izan zen urte askoan. Eta hortik etorri zitzaion Gipuzkoa eta Nafarroako notariotza hutsak betetzeko oposizio-epaimahai askotan idazkari gisa parte hartu izana, eta notario-araudiaren arabera euskara jakitea eskatzeko baldintza betetzen zela bermatzeko ardua zuen, harik eta Madrilgo Gobernuak XX. mendeko lehen hamarkadetan baldintza hori ezabatu zuen arte.

Bestalde, Nafarroako Zuzenbide Zibilaren etorkizunari buruzko kezka ere agertu zuen Echaidek. Horregatik parte hartu zuen Kode Zibila prestatzeko hainbat kongresu juridikotan. Era berean, *Apuntes sobre la aplicación del Código Civil en Navarra* (Kode Zibila Nafarroan aplikatzeari buruzko oharra) lana argitaratu zuen, eta 1900 eta 1904 bitartean Nafarroako Zuzenbide Zibilaren Foru Gehigarriko Proiektuetan parte hartu.

Euskaltzalea eta idazlea

XIX. mendeko azken urte haietan, Nafarroan mugimendu euskaltzalea bizkortzen ari zen Nafarroako Euskal Elkargoaren bidez (1877-1897), eta hor ere utzi zuen bere arrastoa. Elkarte horren idazkaria eta bultzatzaileetako bat izan zen, baita elkarteak hainbat urtetan (1878-1883) argitaratu zuen *Revista Euskara* aldizkari kolaboratzailea ere.


Euskarari dagokionez, Echaide, Euskal Elkargoaren bitartez, Nafarroako 1878ko egoera linguistikoa ezagutzeaz arduratu zen. Eta euskarak Nafarroan zuen hedadura aztertuta, zehaztu zuen zein herritan mintzatzen zen euskara, zeinetan euskara eta gaztelania eta zeinetan gaztelania bakarrik.

Echaidek gaztelaniara itzuli zuen eta Euskara aldizkarian argitaratu *Jaungoikoa bera bakarrik da andi* euskarazko poesia, 1879an Elizondoko Lore Jokoetan ohorezko aipamena jaso zuena, Darrupe Arluz urruñarrak Ameriketatik bidalia. Haren itzulpenak garbi erakusten digu euskararen eta gaztelaniaren ezagutza handia zuela.

Salvador Echaide, beraz, foru zuzenbidearen eta hizkuntzaren bidez, euskara arlo desberdinetan berreskuratzeko ekintzaile sutsua izan zen. ■

Andres Urrutia euskaltzainburuak Euskal Herriko Notarioen Elkargoko Egiunea aldizkarian argitaratutako lanean oinarrituta osatu du gu artikulua.

OHAR HISTORIKOA



El notario euskaldun **Salvador Echaide** realizó importantes avances en el fomento del euskera, tanto a nivel jurídico como cultural.

Nahi baduzu,
nirekin euskaraz



Nahi baduzu,
nirekin
euskaraz

Gobierno de Navarra Nafarroako Gobernua

Mahairako edo arropan jartzeko identifikatzaile bat nahi baduzu, idatzi helbide honetara:

plangintza@navarra.es

Anima zaitez ENAP aldizkariaren hurrengo zenbakietan parte hartzera, zure ekarpenak eskertuko ditugu!



Itzultzaile neuronalak

- Itzultzaile automatikoa baliagarria da testuak ulertzeko.
- Testuak sortzean, ezinbestekoa da emailza errepasatzea.



Agurra ele bitan egiteak euskarazko elkarrizketa errazten du:

"Egun on, buenos días"



euskarabidea

Euskarabidea - Euskararen Nafar Institutua

www.euskarabidea.eus



Paulino Caballero, 13
31002 Iruña
848 42 60 54

euskarabidea@navarra.es

Gobierno de Navarra Nafarroako Gobernua

EUSKARABIDEAK ESKAINTZEN DITUEN ZERBITZUAK:

- Itzulpen gintza: Itzulpenflow eskatzaileen bidez.
- Hizkuntza aholkularitza.
- Aldibereko interpretazioa.
- Euskara maila egiaztatze probak.
- Euskara ikastaroak.
- Euskararen liburutegi espezializatua.



Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua



euskarabidea